

START INNOVA PROIEKTUA

Jon Auzmendi, Ruben Ginto, Alex Echarri eta Javi Castaño.

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Gure produktuaren bitartez eskaintzen dugun zerbitzua, ez da esparru ezagun konkretu batera murrizten. Produktuaren bitartez, bezeroek lortuko duten da, beraien gauzak galtzerakoan, erraztasunez eta esfortzu handirik egin gabe hauek berreskuratzea lortzea. Nork ez du galdu noizbait etxeko giltzak edo diru zorria?

Argi dago danok izan garela noizbait horrelako egoera batean, horregatik, gure produktuaren bitartez, gure burua estutasun horretan gehiago ez ikusteko, produktu hau aurrera eraman dugu. Txip lokalizadore baten eta norberaren mugikorretik kudeatu daiteken aplikazio baten bitartez nahikoa izango du bezeroak galdutako objektua berreskuratzeko, egin beharko duen gauza bakarra, gure plataforman doanik den izena ematea eta gero aplikazioaren bitartez nahi haina txip, aktibatzea izango da. Txipez ez nahasteko, bakoitzari izen bat eman al emango zaio. Behin izena eman ondoren eta txip-a aktibatu ondoren, nahi duzun objektuan itsastea faltako da soilik, horrela galtzerakoan, aplikazioan sartu eta txip-aren kokapena zein den begiratzea banian besterik ez da geldituko.



Beste enpresa batzuegatik bereizten gaituzten aspektu ugari daude, gure merkatua monopolioa da, kontuan badugu ez dagoela guk asetzen dugun beharra, era berdinean asetzen duen enpresarik. Hala ere, beharra beste era batera asetzen duen enpresak badaude beraz zeharkako lehiakideak baditugu beraz lehiakidetza osoko merkatu zabalago baten parte gara ere bai. Bigarren merkatu honetan besteengandik bereizten gaituzten aspektuak, honako hauek dira batez ere: Segurtasuna eta bezeroekiko gertutasuna. Bi alderdi hauek dira bezeroak gure produktua hautatzera eramaten dutenak.



Segurtasunari buruz hitz egiterakoan, txip-a ehuneko ehunean segurua da, kalitatezko materialez osaturik dago, honetaz aparte, bezeroaren datu pertsonalak oso ondo gordetzen ditu gure plataformak. Edonork ezin du zure txip-en kokapena ikusi txip-aren pin zenbakia eta plataformaren erabiltzaile baten izena eta bere pasahitza ez badute.

Besteengan bereizten gaituen beste ezaugarri nagusia, esan bezala bezeroarekiko dugun gertutasuna da. Bezeroari gurekin kontaktuan jartzeko hainbat era eskaintzen dizkiegu. Gure dendara etorri daitezke lanegunetan goizeko 09:00-20:00tara. Aukera honekin nahikoa izango ez balitz, 2.modu bat izango genuke, gure webguneko plataforma digitala, bertan edozein egunetan eta edozein ordutan zalantzak edo aholkuak galdetzeko aukera izango dute. Larrialdi kasuentzako, telefono zenbaki bat izango dugu bezeroen esku.